


Jaki osasuntsuak azokan

Eskolan egiteko ariketak






Bisita egin baino lehen

Goazen erosketak egitera!

Laster Ordiziako azokara joango zara, baina oraingo honetan zuk arduratu beharko duzu gauzak erostean.

 Behean daukazun zerrenda guzti honetatik zer beharko duzula uste duzu?

- Otarra edo berrerabil daitekeen poltsa
- MP3
- Dirua
- Diru-zorroa
- Erosketarako zerrenda
- Ordularia
- Mapa bat
- Visa txartela
- Arkatza eta orria apuntatzeko

Bi kate hauek ikusita zein uste duzu ematen dela azokan?

1. Baserritarra — Biltzailea — Garraiolaria — Banatzailea — Dendaria — Zu
2. Baserritarra — Zu

 Zein produktu uste duzu aurkituko duzula azokan?

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Liburuak | <input type="checkbox"/> Boligrafoak |
| <input checked="" type="checkbox"/> Datilak | <input type="checkbox"/> Kartulinak |
| <input checked="" type="checkbox"/> Piperrak | <input checked="" type="checkbox"/> Tomatea |
| <input checked="" type="checkbox"/> Eztia | <input type="checkbox"/> Kukuxumusu kamisetak |
| <input checked="" type="checkbox"/> Ogia | <input type="checkbox"/> Nike Zapatilak |



✎ Jar ezazu zein ordutan egiten duzun egunean zehar otordu hauek:

• Gosaria:	08:00
• Hamaiketakoak:	11:00
• Bazkaria:	13:00
• Afskaria:	15:00
• Afaria:	20:30

✎ Konta itzazu otordu batetik bestera ezer jan gabe pasa dituzun orduak:

• 1-2:	3
• 2-3:	2
• 3-4:	4
• 4-5:	3.30
• 5-1:	11.30

✎ Hori kontuan izanik, zein uste duzu izan beharko lukeela garrantzi gehien eman beharreko otordua?

Gosaria.....

Zergatik?

Nahiz eta lotan pasa, ordu asko igaro ditugu ezer jan gabe, baraurik, eta.....

egun osoan egin behar ditugun gauza guztietarako energia nahikoa izateko.....

ondo gosaldu behar dugu......

.....



Bisita egin ondoren

Azokan duela gutxi izan zara. Egon al zara noizbait almazen handi batean? Eta auzoko dendan?

Hiruen artean konparaketa egin:

Non pasa duzu denbora gehiago erosten?

Almazenean

Non erosi dituzu behar ez zenituen edo zerrendan ez zenituen gauzak?

Almazenean

Non izan duzu hitz egiteko aukera gehiago?

Azokan

Non eskatu behar izan duzu nahi zenuena?


Azokan

Non aukeratu ahal izan duzu nahi zenuena?


Bietan

D'elikatuz zentroan ikusitako piramidea gogoan al duzu? Marraz eta ordena itzazu jaki hauek beharreko lekuan:

- zerealak
- gomazko gozokiak
- oliba olio
- haragia
- arraina
- jogurta
- patata
- esnea
- sagarra
- kiwia
- letxuga
- Croissant
- dilistak
- arrautza
- makarroiak
- gazta
- ogia





 Denetatik jan behar dugu, baina Piramide horren goiko puntan dauden jakiak, zergatik jartzen dira hor? Zer esan nahi du horrek? Zergatik?


Nohizbehinka jan behar ditugula. Ematen diguten koipe mota dela eta, gehiegitan jaten baditugu gaixotu gaitzkeelako.


.....

.....

.....

.....

 Azokan ezti, gazta, barazkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta saltzera joaten diren baserritarrak ezagutu dituzu, ezagutzen al dituzu beraien baserriak?

 “Baserria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraien ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitez zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!

